

EREINTZA ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK

AURTEN ERE EUSKAL ANTZERKIA MADALENETAN

Mikel Ugalde

Garai bateko usadioei jarraiki, aurten ere euskal antzerkia ikusteko eta gozatzeko zoria izango dugu aurtengo Madalen jaietan. Ereintza zaharberrituak Telesforo Monzonek 1966an idatzitako *Eneko Bizkai eta Maria Lorka* antzezlanaren aurkeztuko du uztailearen 23an Erretereria Kultur Zentruan. Honenbestez, garai bateko ohitura berreskuratzeko asmoz, iaz emandako hasierak aurtengoan ere izango du jarraipenik erretereriar askoren gozamenerako.

Urtetan aurrera goazenok gogoan dugu garai batean, duela berrogeiren bat urte hasita, urtero urtero, Andoni Korta gidari zela, herriko jaietan Alameda Zineman Ereintzak burutu ohi zituen emanaldiak. Arratsaldean nahiz gauean aretoa betetzeko hainbat jende biltzen zen ohiko ospakizun hartan. Geroztik, etenaldi luze baten ondoren, hemen datorkigu ereintzatarren enborretik sortutako kimu berria lehengoari eusteko asmoz.

URKIOLATIK PARISA

Iaz antzeztutako lana, Imanol Eliasen *Urkiola*, Anboto inguruko sorgin kontuak medio, mendi hegal honen baserri batean kokatzen zen. Urkiola zen lanaren izenburua eta kokagunea. Istorioa, berriz, XVI. mendean girotua zuen.

Aurtengo honetan, ordea, XX. mendean Parisen girotutako istorioak dakarzkigu Telesforo Monzonek. Ondo bildu eta biribiltutako istorioak, maisutasun handiz josiak, ikuslearen interesa hasiera hasieratik irabazten dituztenak.

Monzonek lan hau egin zuenetik hogeita hamaihiru hurte pasa diren arren, *Eneko Bizkai eta Maria Lorka* saioan gaurkotasun handiko gaiak jorratzen dituela berehala antz emango dio ikusleak: euskalgintzaren aldeko erreibindikazioa, estatu agintarietako boterea areagotzeko egiten

Hona hemen Jesús Izagirre eta Arantza Perez Zukatz eta Xukelai pertsonaiak



duten ahalegina, ekologiaren ikuspuntutik herri bat suntsitzeak sortarazten dituen kezkek, elkar maite duten Espainiako neska baten eta euskal abertzale baten arteko gorabeherak...Horiek guztiak gutxi bailiren, gaur egun gure gizartean aurrez aurre dugun erroka, hots, indarkeria nozitu dutenen eta erasotzaileen arteko elkargunea landuz aurrera begiratu beharra, planteatzen da antzezlanaren amaieran.

Esan gabe doa, Monzonen estiloak are erakargarriagoa egiten duela bere lana. Zuzena da, zehatza, pertsonaien izaerari ongi egokitua, aukera handia eskaintzen dio antzezleari zein ikusleari.

HIRUROGEIGARREN HAMARKADA

Aipatu hamarkadan Euskal Herriak, eta oro har Europak, bizi zuen giroa gogoratzeak, sendotu egiten du *Eneko Bizkai eta Maria Lorka* lanaren balioa. Izan ere euskal gizartea irakite gorian aurkitzen zen garai hartan. Batetik, baserriaren munduan sustraitutako euskal izaera hiritartu beharra aldarrikatzen zuen hainbat gaztek. Hiri giroa zen irabazi beharrekoa, hiriaren erdigunean jokatzeko euskalgintzaren etorkizuna. Iraganari begiratu ordez, etorkizunari aurre egin diezaiokeen erroka erantzun beharra aldarrikatzen zen gero eta gehiago. Euskaldun-fededun binomioa ere apurtu egiten da garai horretan. Euskaldun eta euskaltzale izateko ez da kristau izatea ezinbesteko baldintza izango...Saizarbitoriak, Txilardegik, Arestik halako iraulia eragiten diote euskal literaturari.

Antzeko bidegurutzean ikusten zuten adituek euskara bera. Bi aukera zituen: lehenean segi edota euskara idatzia biziberritu ahal izateko euskara batuaren aldeko apustua egin. Hamarkada horretako da Baionan eginiko bilkuraren ahalegina, edota 1968an Euskaltzaindiak Arantzazun eginiko bilera. Gauza jakina denez, Koldo Mitxelena erreteriarra buru zela, zenbait mingarri gertatuko bazitzaion ere, batuaren aldeko apustua egin zen. Urrats haien aurrerakadaren lekuko izan ginenok gogoan ditugu *h* hizkiaren inguruan sortutako eztabaidak eta mindurak.

Garai honetakoa da, beraz, Monzonen obra. Egileak ez du nekazal jatorria, sorterriko giroa eta hainbat ohitura gutxien. Alde honetatik ez dago etenik lan honetan. Antzerkia, ordea, Parisen kokatzen du. Ikerlari amorratu bat eta poesiaren gailurrera iritsi den neska izango dira protagonista. Euskal antzerkian hainbatetan agertzen diren apaiza eta izeba mutxurdinaz gain, abokatua edota herririk indartsuenetako enbajadoreak euskaraz mintza daitezen ere tartean bilduko ditu. Francoren esaneko enbajadorea ere, Espainiakoa alegia, ez da faltako.

Madalenetan antzeztuko den lanean jorratutako gaiak giza-bizitzan ohikoak dira, baina halako ikuspegi berrizale batekin planteatuak. Lehen esan bezala, bikoteak maitasun bidean aurrera egiteko dituen zailtasunak, gizartearen modernitatea lehengoa desegin gabe eraiki beharra, indarkeriaren zulotik irteteko eman beharreko ezinbesteko pausoak...Bai, bai, horiek guztiak ikusi ahal izango ditu uztailaren 23an Erreterriako Kultur Zentrura hurbiltzen denak.



EREINTZA INDARBERRITUA

Antzerki talde indarberritua azalduko zaigu egun horretan. Belaunaldien arteko elkarlanari eskerrak, etorkizun handiko taldea osatzea lortu dute. Sabin Irastortza zuzendari dutela, eta Arantxa Perezen lana ere tarteko delarik, lehen pauso tinkoak eman ditu Ereintzako gazte koadrilak. Oneka Oliveri, Josu Izagirre, Denis Itxaso, Xurdana Eskudero, Jaione Pikabea, Mikel Zubiria, Nahara Gago eta Dabid Gomara taularatuko zaizkigu oraingo honetan

Eskertzekoa da Erreterian lan hau Madalenetan antzezteko egin duten ahalegina. Izan ere gure herrian eginikoa izango baita lehen emanaldia. Ondoren euskal lurraldeko beste hainbat herritara joateko asmotan dira.

Antzezlanaren erakargarritasunak eta taldeak erakutsiko duen mailak etorkizun ezin hobea eskaintzen diote talde honi.

Pentsatzekoa da gure Andoni Korta ere, zerutik txango bat eginez, pozik eta irrifartsu agertuko zaigula. Hark ereindako hazitik gertatu baita loraldi berria.